

EUROPAKO ERRUGBI FINALAK BILBORA IRITSI DIRA



Maiatzaren 22an eta 23an Europako errugbiko final nagusiak jokatu dira Bilbon



Maiatzaren 22an eta 23an, Bilbon jokatu dira Europako errugbi-final handiak. Nazioarteko ekitaldi horrek milaka zale erakarriko ditu, **EPCR Challenge Cup 2026ko** Montpellier Hérault Rugby eta Ulster Rugby taldeen arteko finalera, **eta 2026ko Investec Champions Cupeko Leinster Rugby eta Union Bordeaux Bègles taldeen artekoak.**

□ **INFO GUZTIA HEMEN [AQUI](#)**

San Mamesen jokatu dira partidak, eta zaleentzako hainbat jarduera izango dira Champions Rugby Villagen. Doña Casilda parkean dago, eta bi egunetan irekita egongo da, 11:00etatik 01:00etara.

Gertaera hau dela eta, trafikoan, aparkalekuan eta garraio publikoan

eragin garrantzitsuak izango direla aurreikusi da, batez ere San Mames eta Casilda Iturrizar parkeen inguruetan, bai ostiralean, hilak 22, bai larunbatean, hilak 23, 11:00etatik aurrera.

□ **KONTSULTATU HEMEN FINALEK TRAFIKOAN ETA GARRAIO PUBLIKOAN IZANGO DITUZTEN ERAGINAK.**

Champions Rugby Village

Champions Rugby Village, bi finaletarako fan zone ofiziala, Casilda Iturrizar parkean kokatuko da, pergola inguruan hain zuzen ere, eta jai giroa izango da kirol eta kultur jarduerekin, musikarekin, animazioarekin eta gastronomia gunearekin.

Gune irekia izango da eta sarrera doakoa izango da bai lau talde finalistetako zaleentzat, bai gainerako kirolzaleentzat eta, oro har, euskal herritarrentzat.

Animazioa txarangarekin Sama Sikuren eskutik, errugbiko partidu txikiak, touch baloi jaurtiketak -pase motza eskaerara, Oxabi taldearen kontzertua, kalejirak, Ondalaneko dultzainero eta erraldoien konpartsaren kalejira, DJ Estrella Electrónica... izango dira ospakizun komuneko gune honetan aurreikusitako jardueretako batzuk. Gainera, piknika egiteko guneak egongo dira, baita sponsor guneak ere, besteak beste.

Champions Rugby Village bi egunetan, maiatzaren 22an eta 23an, irekita egongo da 11:00etatik aurrera, etenik gabeko ordutegian.

Universitario Bilbao Rugby (UBR meeting point) -Gozatu eta sentitu ERRUGBIA!

Indautxu Plaza Bilboko rugbier giroaren topagune nagusietako bat izango da Europako finaletan, **“UBR Meeting Point”**-arekin: zale eta bisitariei irekitako gunea, txozna, talo-toki, musika, merchandising eta animazioarekin asteburu osoan zehar. Topaketen aurreko eta ondorengo girorik onenaz gozatzeko pentsatutako lekua, hiriaren bihotzean.

Osagarri gisa, Bizkaia Plazak **“Family Rugby Point”** proposamen familiarra eta haurrentzako hartuko du, errugbiko ginkana, belar artifizialeko mini zelaia, photocall-a eta Bilbao Rugby Pasaporteia lortzeko eta opariekkin trukatzeko jarduerak barne.

Egitarau eta informazio eguneratu guztia **Universitario Bilbao Rugby** taldearen sare sozialen bidez jarraitu ahal izango da.